

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
51n. ZENBAKIA
ZEZEILLA

- 1982 -

Vizcaya
12/10/82
del día
de 1982
Prvincial,

Martín Plaza




EUSKALDUNEN IRUDIGINTZA
BARROKO-TANKERAZ ANTXIETA'K
(Kepa D.^a, Bilbo'ko San Anton'en)

Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Confie en nosotros

Zere nortea zuzan



CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA

IBILLALDI BARRIAN

Ona emen zure eskuetan, irakurle, 5 In. ZER gure aldizkaria.

Aurreko 50n. ZER'en emon genduan egindako azterpenaren barria eta aurrerako asmoen jakingarri batzuk be bai.

Orain ibillaldi barrian gagoz eta, geure apaltsasunean, ba-daukagu bizi-poza.

Egin dogun geldi-aldi onek eta Larra'ko batzarrak indar barria emon dauskue. Ondo etorten dira, bai, noizean bein, olako geldi-aldiak, bidea aztertzeke ta jokabide barriak ikusteko.

Irakurleak ikusi daiken lez, ez dauka ZER onek aldakintza aundirik.

Geure neurrien barruan eta aundikerien ames barik jarraitzeke ustea dogu.

Dana dala, ba-dago irakurleai agertu bearreke jokabide barrien arloan esateke zerbait.

Arlo barri bi sortu gura gendukez: Euskalerriko barriena eta mundukoena.

Illeroko aldizkaria ez da barriak emoteko egokia, izatez, epe orretan barriak zar biurtzen dira-ta. Gaiñera ez da illebeteko epea beste barik, amabost egun geiago ezarri bear dira irarkolako ta banakolako lanak egiteko.

Baiña jakingarri orreik, labur-labur emoteko ba-dago zioa: Ille osoaren ikuspegia izan eta jekingarriai euskal-ikuspegia ezarri.

Lan au egiteko, egunero ardurea artu bear da eta izparringia irakurten danean, jakingarriak labur-labur idatzi gero garbitara igaroteko.

Olako lana idazle bik egin bearko leukee, laterri-artekeoa batake eta Euzkadi'koa besteak. Olako zerbait zan aurreke zembakian urte zarrari buruz egindako lana.

Eta gai bi orrei begira lan luzeagoak egitea ondo litzake, garrantzi ta zarata aundiko jazokizun bat aukeratuta. Esaterako, zembaki onetan Polonia'ri buruz egiten dana eta aspaldion argitaratzen dan CUBA BARRUTIK lana.

Bardin agin gura genduke Euzkadi'ko jazokizun zaratatsuai buruz, gure irakurleen argi-bidera eta pentsabidera sartzeko.

Ba-dira irakurle batzuk lan luzeak eta sakonak irakurri nai leukeezenak be.

Oneintzat izaten dira, batez be, erdiko orrialde bietan agertzen diran lanak. Geienetan idazleen barriak izaten dira, batzutan oraingoan eta beste batzutan antxiñakoenak. Aita Santi ta Aita Lino izaten dira geienetan idazle, baiña beste edozeiñek be or dauko lekua nai izan ezkeru.

Liburu barrien aitapenak eta azterpenak be jarraituko dabe. Eta au alde batetik olako lanen zabal-kundea egiteko eta beste batetik, jakintza arloke jakingarriak irakurleengana eldu daitezcan.

Bide orretan egoan azkenengo zembakian agertzen zan Bizkai'ko Foruaren itzulpenaren barria. Arlo onetan be, idazleak ba-dauke aukerea euren eritxiak agertzeke.

Eziketa-arloan ainbat lan eta ederrak agertu doguz, batez be gure Josu Legarreta'renak, eta bide ori be jarraitu-bearrekeoa dala uste dogu.

Ortik doa zembaki onetan agertzen dan Goikoetxea'tar Iñaki'ren lana.

Bersolariak ta olerkariak be beti itziko dautsegu lekua, baiña eroapen apur bat izan bearko dabe. Sailla onetarako lan geiegi artzen dogu eta ez da izaten erreza guztiak agertzea.

Antzera jazoten da eleiz-bideke idaz-lanakaz. Geiegi etorten dira eta idaztegian itxaron bear izaten dabe sarritan aldi egokian argitara urteteteko.

ZER'en sendia osotzen dogun guztiok jarraitu dagigun gogotsu, idazten, irakurten, lanean... alkarrentzat beti esker onez.

ESKATZEA LIBREA DA, EMOTEA BE BAI

Gabonillean gagoz. Poztasun egunak. Olentzero be laster etorriko da. Gure Iñakitxu urte guztian ona izan dan ezkerro, ziur dago Olentzeriak gauza asko ekarriko dautsozala. Baiña aztu egiten ba'da? Onera, Olentzero jaunari gutun bat idaztea izango da, aztu ez daiten. Eta orretan aurkitzen dau bere aitak lanetik etxera datorrenean:

—Zertan zabiltz Iñakitxu?

—Ba... Olentzeroari idazten!

—Baiña ona izan zara, gero?

—Bai! Begira (eta atzamarrakaz kontatzen asten da): Neurri onak atara dodaz, ama ez zu ez zai-tuet asarratu eragin, amak agindu daustazan lan guztiak egin dodaz, zuk tabakoaren billa agindu nauzunean...

—Naiko, naiko, bai ona izan zara —dinotso aitak— eta zer eskatuko dautsezu?

—Ba... kamioi bat, egazkin bat, kometa bat, lau tebeo, txirringa bat, iru ingurrazti margoztuteko, margoak...

—Ixoooo! Orren beste gauza?

—Jakiña! Zer arraio! Ona izan naz eta eskatzeko eskubidea daukat!!!

—Baiña orrek gauza guztiak zeuretzako baiño ez dira?

—Baiña ba, norentzako izango dira ba? —diño Iñakitxuk—.

—Ez dakizu mutil batzuk jostailu barik geratuko dirala? —itaunduten dautso aitak.

—Ba, eta niri zer! Niri ez daust ardura! Ori euren gauzea da! Alla eurak!

—Alla eurak? Ez dozu uste apur bat egoistea zerala? Ez dozu uste penagarria dala zurelako beste mutil batzuk jostailu barik geratzea? —Dinotso aitak—.

—Bai, baiña ni ona izan naz eta eskatzeko eskubidea daukat!

—Baiña olan eta guzti, ez dozu lar eskatzen?

—Ez, ni ona izan naz eta nai dodan guztia eskatu neike —diño Iñakitxuk—. Une orretan amaren deia entzuten da:

—Ia, etorri biok, afaria gertu dago eta! Ia, arin otzitu baiño lenago. Orrelan amaitzen da aita eta Iñakitxuren arteko eztabaidea. Afaria jan eta iruren artean oskiak gertatzen dabez Olentzerok bertan bezuzak itziteko. Aitak bere aldetik Koñak apur bar izten dautso edan-ontzi baten Olentzerori.

Gero gure mutil ona oera doa, eta jostailuen ametsen artean loak artzen dau. Amets artean bera

ikusten da Olentzerok ekarritako jostailuekaz jolastan.

Urrengo egunean zazpiretako izartu egiten da, eta oean ona eta orra asten da, lotu ezinik, aita eta ama izartu arte. Amak ba-diñotso:

—Zer darabiltzu Iñaki! Egizu lo apur bat orain-diño goizetik da-eta!

—Ez naz logura eta gaiñera jostailuak ikusi gura dodaz!

—Itxaron eoizu apur bat goizetik da ta!

—Ikusi egian gura dodaz, ikusi egun gura dodaz! —diño negar artean mutillak—.

—Ia ba, joan zaitez ikusten —diñotso aitak—.

Eta bereala salto bat egin, mantak alde batera egiñaz, or doa Iñaki ariñeketan sutera jostailuak ikusten.

—Baiña zer da au? Emen ez dago ezer be! Aita etorri! Emen ez dago ezer be!

—Begiratu dozu ondo zure oskietan? —itaunduten dautso amak oetik—.

—Ia... baiña zer egin dau Olentzerok? Ikatza itzi dau! Erratu egin da, ezin leiteke izan, ni ona izan naz...

Orduntxe elduten da sutera aita eta Iñakiren oskien artean sobre bat aurkitzen dau.

—Iñaki, antza au zuretzat da, emen «Iñakirentzat» ipinten dau.

Iñakik sobre a artu eta zabaltzen asten da, arinarinka esturik, bertan dagoen papera atara eta au irakurten dau:

«Nere lagun Iñakitxuri:

Zugaz bat nago mutil ona izan zarela, baiña gauza lar-egi eskatu dozuz, eta **ESKATZEA LIBREA BA DA; EMOTEA BE BAI.**

Zure lagun dan.

OLENTZERO'k

ENDIKA

IZTEGIA

Gutuna/kartea
Itaundu/preguntau
Bezuzak/erregaluak
Jostailuak/jugeteak
Egazkiña/aeroplanoa
Margotu/pintau

UMEEN ARAZOAK

ZENBAKIETAN

Umeen urtea egin zala ez da denpora asko, baiña beti izan bear da umeen arazoak eta bearkizunak gogoratzeko sasoi ona.

Zeintzuk dira umeentzat ekiñaldirik onenak eta irabazkorrenak? Ez salerosteagaz zer-ikusia daukenak; eurentzako argibideak eta ondoren datozen jakintza-gaiak dira bearragoak.

Umeen zoritxarrak zuzentzeko ta lazkeriak aldentzeko zeozer egin bear dogu. Gaur munduan 350 milloi ume bizi dira gosez eta zenbaki au geroago aundiagoa izango da. Ez da iñondik agiri onbide eragillerik.50 milloi umegai, jaio-bako ilten dira. Urtero A bitaminea bear dan neurrian ez daukelako 100.000 ume itsutu egiten dira.156 milloi ume urietako bazterretan kirats eta zekenkeri-giro mingarrian bizi dira.52 milloi umek diardue lanean eta alogor gitxi ordainduaz besteentzat onuragarri eta euren buruentzat kaltegarri dira. Eundaka milloiak ezin dira eldu len-maillako ikastegira. Lurralde batzutan gurasoak saldu egiten devez euren umeak.

JOKABIDE ZUZENAK

Ba-dagoz jokabide zuzen batzuk oiñarri-oiñarrian gizonen bizitzak zuzendu ta umeen laguntzara biurtzeko diranak.

Asteko, umegai jaiobakoen eskubideak kontuan artu eta euren jaiotzarako eskubide ausi-eziña itzaltasunaz begiratu.

Lurralde lantegitsuen janari-ornitza goratu eta guraso guztien buruetara sartu seme-alabentzat euren diruak baiño euren astialdiak balio aundiagoa daukala eta munduko ekonomi ta gizabidea obetuteko guztiok lagundu.

GOGORKERI BARIK

Naimenezko aurgaltzea gaiztakeri berezia da beti eta eritxi ori zabaltzea bear-bearrekoa dogu, mundu osoak jakin dagian.

Talde bide-galdukoak ba'dagoz, ez da zertan legeak arein neurritz egin

baiña egibideak be ez dira gogorkeriz leporatu bear, eritxi okerrak nai ta nai ez galazotea be indarkeria ta ondorengo kalte geiago etorteko bidea izango litzake.

BATASUN ERAGINKORRA

Janari ornidutzeaz beste batasun eraginkor bat erabili bear dogu.

Orretarako lurralde aurreratuak lalterri gosedunai laguntza emon bear dautsee, ez bezuza legez, biotza ainsteko zabaltasunera eltzen ez ba'da, onura ta epe oneko baldintzaz baiño.

Orrelan erri aberatsak euren etorkizunaren alde alegindu leitezke eta beste aberriak aundiago egiñaz erosle geiago egingo dabez euren bialbideak sendotzeko.

bat ori jazo ez daiten gogamen au buruan izateko: Umeak amaren jarraipen lez, sendia bear dauala.

ANDREAREN LANA

Andra ezkonduaren lana geroago ta geiago zabaltzen da, oraingo biziarearen indarrak eskatzen daualakoedo, senarraren lan geiagia ta askotariko zeregiñak, sarritan izaten dira sendiarentzat kaltegarri. Umeak sendiaren babesa ta zaintza bear dabe.

Janari ornitza egiteko bide bakarra ez da lana, or dagoz trebebeideen laguntzak, jakintza ta eziketaren bide barriak, senkaketa ta osakai-saltzeko era barriak, langintza, salerosketa, diru-erabiltzeko alkar-bideak...



BARDINTASUNEAN

Legeak gaur bakoitxaren nortasuna zaindu ta sendotzen dau askatasunean, norberaren buru-jabetasunean, seksu ta adin-arteko al dan besteko bardintasunean.

Baiña sendi-eskubideak arriskuan dagoz, baztertzeko bidean. Umearen erri-arteko urtea izan zan sasoi on

JOKABIDE ZEATZAK

Umearen eskubideak erri-jolas edo folklore lez artzeko arriskua dauka, baiña munduaren etorkizuna da umea eta bere arazoak sakon aztertu bear doguz, urrengo gizakiak gu gaur garan baiño orniduagoak eta obeak izan daitezcan.

EGILUZE'k

GABON-ALDEAN

(Olerki au kantetako
egiña da)

Gantzabal'eko zelain
sorgiñak dabiz,
kanta ta dantza,
neguko illargi zuritan.

Euskalerriko
eguratsean
itxaropenezko aize.
Maite ditudan
guraso eta
senideen oroi dakaste.

Gogoan dodaz
maite ditudan
zidor, landa eta etxe:
gastetxutako
berein gomutaz
daukat, gogo, bertantxe.

Gantzabaleko zelaian...

Erungo dodaz
besigu bi, ta
guztia izango alaitsu,
Amak egingo
intxaur-saltsea:
Gabonak, bai zorionsu!

Ikusko ditut
auzo ta aiskide,
erriko gaste ta zaarrak.
Lenauko poza
aurkituko dot:
Aratuko itut bazterrak.

Gantzabal'eko...

Dingilin-dangan
dabiz kanpaiak,
joanen gomuta dabe,
Gogoan dodaz

eun adiskide,
maite nitun areik bere.

Mundua-zear
milla ezbear
aurkitzen baitira, sarri:
Gastetxutako
oroipenetan
ba-dira eun sendagarri.

Gantzabal'eko...

Piñudi baltzez
estali dira
erriko bazter guztiak.
Euskalerrria
ondatzen dabiz
etsaien asmu dongeak.

AURRAITZ

Arrantzale adintsua, kai bazterrean

*Urteetako kresalak mazkaldurik
(orizkatua ta baltzizkindua)
orri erdi-zimel baten antzera
ta urte aztunakaz makurturik
arrantzalea, itxastar gizona
(udazkenko ikutu arabera)
kai bazterrean dakust ezindua
bakartadez, itxasoari begira.*

*Ugiñik ugin, itxas ur aundietan
ta, ibili barik, olatubera
ibilteko oitura geldo arek
egin au legorrerako benetan
baldar, ain taiu gitxiko berunta,
ibiliko ba'intz lez albokera,
itxasoaren arako goiberatan
tinkaturik zure oin nekatuak.*

*Itxasoko osertz urrunetara
begiratze arek espeldu zitun
zure begi zuriak. Orain ikara,
gogoraturik ainbat gertakizun
lengoz-lengo, amesten ari zara
biurturik itxas-urbideetara
ainbat nekebidezko gau ta egun
igaroren arrantzu lekuetara.*

*Akiturik zure barruko sua
aize kresalduak eroan ditu
zure kirio eta, oldozkunak,
zure gaztetasun giartasunak
ta, orain bakarrik gelditzen datzu
lorik egin ezin arduratsua
ta, oi diran gogo illuntasunak
lengo ats apurrez bizigaitua.*

MUNIATEGI-tar Sabin

Euzkadi'tik mundura begira

GURE ANTZEKOAK

Alkarrekin kidetasun aundia dogu, gauza askotan, palonitarrak eta euskaldunok, aien edestia (istoria) eta gurea berdiñak bait dira puntu batzuetan.

Baiña beste guztien gaindik gauza batek egiten gaitu aiek eta gu alkarren antzeko: askatasunari dautsagun maitasunak.

Euzkadi'k ez dau askatasunik izan, joan dan mendean (sigloan) indarrez Lagi Zarra kendu yakon ezker.

Lagi Zarra burujabetza (autonomi) osoa zan eta egiazko yaretasuna (independentzia): Aberriarentzat eta aberriko gizakume guztientzat —ta gizakume bakoitzarentzat—, benetako askatasuna.

Munduan ez da izan demokrazirik (erkalik) jendeari gure Lagi Zarrak aiñako askatasunik iñoiz eman dautsonik.

ASKATASUN-BILLA

Euzkadi lez, askatasunik gabe eta egiazko yaretasunik gabe dago gaur Poloni.

Len ere maiz egon oi da orrela lurralde zabal ura.

Orraingo ontan Errusi Komnistak kendu eutsan. Poloni'ri burujabetza —eta une berean Poloni'ko jendeari askatasuna—, azkeneko Ludi-Gudaren ostean, inguruko Laterrietan (Estaduetan) lez, an ere indarrez komunismoa ezarri ebanean.

Komunismoa eta Aberri bakoitzaren burujabetasuna, alkarrekin lotu ezin diran gauzak doguz, ludi-errialde guztien gaindik Agintaritzak Bakar Mundukoi (mundial) bat ipiñi gura bait dau komunismoak.

Indarrezko Agintaritzak orren mendera buruak makurtzea eska-

POLONI

tzen dautse Komunismoak ludi biribileko errialde guztiei.

Gaur egun Errusi'ko Jaurlaritzak dogu Agintaritzak Bakar eta Mundukoi ori: Errusi'ko Proletarien (¿?) Diktadura.

ZAPALTZALLEAK

Gizakumeen askatasunari buruz... ¿nork ez daki berean bizi ez daitekezan txoriak dirala Askatasuna eta Komunismoa?

Komunismoan ezin daiteke Demokrazirik txertatu.

Ezta Komunismorik ere Demokrazian.

Orregaitik, ez da iñoiz ere Laterri demokrazidum bat Demokrazitik komunismora demokrazi-bidez igaro.

Komunist-erri guztietan indarrez eta odoletan izan da ezarria komunismoa.

Ez ote dabe ori ikusten Euzkadi'ko komunistek?

Euzkadi'n ere sortu yakuz bâ komunistak, Franko'ren diktadura luze gogorraren zitu (fruta) lez. (E.I.A. (Euskadiko Ezkerra) eta H.A.S.I. (Erri Batasuna), dodaz gogoan itz auk idazterakoan).

Orain!: baztar guztietan zugaitz usteldua lez komunismoa jausten ari danean jaio yaku emen komunismoa!

Mundu osoan komunismuari eta marxikeriari uko egiten eta ostiko ematen yakonean asi yakuz batzuek emen jainko txiki bezala Marx gurtutzen!

LANGILLEAK

Ez ote dabez begiak irikiko gure komunistak auk —eta alderdi komunistei autarkia ematen dautseen euskotarrek—, Poloni'n gertatzen ari dana ikustean?

Poloni'koa bera gertatu bait zan leen ere Txekoslovakia'n, eta, milla aldiz gogorrago, Ungari'n.

Sortaldeko Alemani'n eta baita Poloni'n bertaten ere gertatuak dira orain amar bat orte orrelako gauzak orain baiño len!

Zearo mingarria eta kezkarria ez ba'litz parregarria izango litzake Poloni'n gertatzen ari dana.

Poloni, Laterri komunistak da.

Beraz, Poloni'n Jaurlaritzak (Gobernua), Proletarien Diktadura da: Langilleek agintzen dabe Poloni'n. Ta... ikus emen benetan gauza miresgarria!

Proletarien Diktaduran, proletariak proletariei proletarientzat askatasuna eskatzen dabiltz oiuka eta asarre joan dan urte oso ontan.

Baiña proletariak ukatu egin dautsee eskari ori proletariei, eta proletariak eskean jarraitzen dabelako, proletariak proletarien aurka proletarien gudarostea atara dabe kalera proletariak tiroka menderatzeko, eta an dabil proletarien gudaroste ori, proletarien esanera, proletariak errukirik gabe zigortzen, proletarien paradisu.

EUSKALDUNAK?

Ori gertatu zan leenago Txekoslovakia'n, Ungari'n, Sarkaldeko Alemani'n, Kanboya'n Laos'en Tibet'en eta Afganistan'en.

Orrelako paradisu biurtu nai al dauskue Euzkadi gure komunist euskotarrek? Ez ote dabe begirik irikiko? Ez ote dabe egirik ikusiko?

Ezbedi, arren, alperrik ixuria izan Poloni'ko langilleen odola! Euzkadi askatasunaren sort-erria da! Ez bedi iñoiz beste diktadura baten ankaperak jausi! Gora Euzkadi *askatuta!*

LATIEGI'tar Bixente

CUBA BARRUTIK (XII)

ATZERRITARRA CUBA'N

Bertakoen aldean, atzerritarrak erreztasun aundiak genduzan.

Dana dala, ez emengo antzekorik be.

Esate baterako, atzerritarrak geure denda edo jatetxe apartak genduzan. Oneitara ezin dira sartu kubatarrak; guk, ostera, geuretan zein eurenetan sartzeko eskubidea gendun.

Bestalde, diplomatikoen dendetara be sartzeko eskubidea gendun. Onetarako Cubalse'k eta norberak egiten eban lantegiak izenpetutako agiri bat erakustea naiko izaten zan.

Baiña, agiri au eskuratu baiño leen, baldintza bat bete bear zan, au da: Banco Nacional Cubano'n atzerriko dirua sartuta euki.

Zer dala eta?

Diplomatikuon dendetan atzerriko diruaz ordaintzen zalako dana.

* * *

Atzerrikoentzako dendok CAT izenaz ezagutzen dira.

Erosketak egiteko, agiri bat agertu bear izaten zan; onek zer edo zenbat erosteko eskubidea zendun agertzen eban.

Ezin gendun nai aña erosi.

Baiña kubatarren aldean ainbat janari erosteko era izaten gendun.

Bakoitzak oneixek erosteko eskubidea eukan: 150'etik 250 gramo inguruko amar aragi lata illean, libra bi txarriki, oilloki edo txalki astean, 6 libra arroz illean, 3 libra azukre illean, libra bat indaba baltz, 6 esne-bote, 50 gramoko 6 pakete astean eta, noizean bein, piper edo tomate lataren bat beste. Pernil egosia eta solomoa be nonoiz ikusi genduzan. Noizean bein patatak, arbigorriak eta iderrak be ikusten ziran. Arrautzak nai zenduzan beste. Era berean guriña, eta iogurrak; mantakadoa, ostera, egoanean. Berexenak bere sasoiak bakarrik; kipulak eta berakatzak aurkitzea oso gatxa izaten zan. Illean litro bat orio. Tomateak eta letxugak neguan

bakarrik, baiña oso kaxkarrak eta txarrak izaten ziran. Porruak eta azelgak ikusi be ez ziran egiten. Ez egoan beste barazkirik.

Frutak: platanoak, laranjak (oso txarrak), piña noizean bein (oso ona) eta, bere sasoiak «mangos» izenenko fruta bat.

Edariak: edaririk arruntena garagardoa zan; beste edariak aurkitu aurkitu egiten ziran, baiña zuur ibilli ezkerero. Sei botella «ron» sendi bakoitzak illean eta ardaa Gabonetan edo olan.

* * *

Emen be koipekeria ugari izaten zan: Ron botella bat, niki bat, abarketa edo antzerako batzuk, edo barruko erropak, edo su-piztutzeko bat, edo boligrafo batez oparitu ezkerero, ainbat geiago erosteko era izaten zendun. Tabakoa, astean bost kutxatxu bakoitzak.

Garbiketara arloan, bakoitzak illean jaboi bi artzen ebazan; janzki garbitzeko, beste bi. Jaboi-autsa, egoanean bakarrik, eta orduan be illean libra bat bakarrik pertsona bakoitzak.

Zerbait geiago nai zanean, diplomatikoen dendara joan bear izaten gendun. Baiña an bertan be ezin erosi izaten genduan ez sagarrik, ez madaririk, ez maatsik, ez ikorik, ez okaranik, ez mertxikarik.

Eta arrain arloan be antzerako arazoa genduan. Eguneko arrainik ezin gendun aurkitu, edo lortzeko eskupekora jo bear zan.

Atzerritarrak batek Cuba'n izan dagiken eragozpenik aundiena berebillik ez iatzea da. Ango autobus eta taxisen jokoa ez guretza-koa.

Gasolina bera neurtuta emoten dabe, baiña berebilla erosi ostean leen aitatutako eskupekoaz lortzen da bear daan beste.

Baiña au berau be gasolina aurkitu aal izan ezkerero, ze illeko azken egunik geienetan tantakadik be ez da izaten gasolineretan.

PIRU LEGARRETA

EUSKAL TRESNAK

1981'eko gabonillaren 24'tik 27 bitartera Zaldibar'ko Elizatean «Antziñako euskal tresnen laugarren erakusketa» egin da. Antolatzailea: Zaldibar'ko Corral Elkarte, Laguntzaileak: Zaldibar'ko Udala ta Bizkai'ko Aurrezki Kutxa.

Gure aldizkari onen irakurleentzat gai interesgarria izango zalakoan, bertaratu giñan eta ondorengo alkarrizketa au egin genduan erakusketako arduradun bategaz, Karlos'egaz.

ZER'ek.—Zenbat tresna izan dira laugarren erakusketa onetan?

Karlos'ek.—Zazpireun baiño geiago.

Z.—Nundik ekarri dabez tresna onek?

K.—Leku askotatik: Bilbo, Markiña, Zegama, Elorrio, Euba, Mañaritik eta beste leku askotatik.

Z.—Zergaitik antolatzen dozue erakusketa au?

K.—Erakusketa onen bidez antziñako tresnak zaindu ta gordetzea eragitzea ta bultzatzea nai da. Gure baserrietako ganbaretan autsez estaldurik dagozan tresnak, eurek merezi daben beste toki egokiago ta dotoreago baten jarri bear doguz. Orretarako eratu dogu erakusketa au, ganbaretan gordeta aurkitzen diran tresna zarrak argia ikusi daien.

Z.—Zein da emen euki dozuen tresnarik baliotsuena?

K.—Baliotsuena zein dan esatea ez da bat ere erreza, geienak oso zarrak dira, liburu ta zeramikak batez be, beraz, tresna orrek euki bear daben salneurria esatea ez da erreza.

Z.—Eta zarrena?

K.—«Anfora» txiki bi, iru bat milla urte ei dabez gitxi gora bera.

Z.—Ikusle asko izan dozue?

K.—Bai, beste urtetan baiño geiago naiz eta egun oso egokiak ez izan, Ganbonetan dakizun lez sendi osoa alkartuta egoten da ta gitxiago urtetan da, gero beste alde batetik jende asko euren errietatik kanpo agoten dira.

Z.—Baiña zabalkunderik ez dozue egin ala?

K.—Bai, egin dogu baiña alperrik izan da. Izparringi, aldizkari ta irratiei bialdu geutsen zabalkundea Korreos'en izan eben lan-izteak edo huelgak arrapatu eban eta ori dala ta ez zan sasoz eldu.

Z.—Sarrerak zenbat balio izan dau?

K.—Duan izan da.

Z.—Jarraitzeko asmorik?

K.—Bai, lanean asita gagoz emendik urte bi edo iru urte barru bostgarren erakusketa eratuteko.

Z.—Zaldibar aldeko baserrietako ganbarak garbi dagoz?

K.—Egon diran gauzak ekarri egin dabez, baiña gauza gitxi izan da zoritxarrez. Jendeak orain arte ez dautse jaramonik egin onelako gauzei ta sarritan emon, saldu, bota edo erre egin dabez, asko ta asko damututen dira baiña beranduegi da.

K.—Bai, oso, lan aundia ta batez be ardurea izaten da aundiagoa. Tresna onein jabeak, asiera baten, bildur izaten dira tresnak izteko, apurtu edo ostuteko arriskuan egon ez daitezcan, asko maite dabez eta...

Z.—Zenbat pertsonak artzen dabe esku lan onetan?

K.—Organizaziñokoak amazortzi gara baiña erakusketa zabalik dagozan egunetan beste amazortzi, beraz guztiz, ogei ta amasei gara.

Z.—Orain-arte Udaletzeko geletan egin dozue, zergaitik oraingoa erriko eskoletan?

K.—Lekua askozaz egoki, epel eta zabalagoa dalago, gaiñera umetxoak oportetan egon diran ezkerro gela guztiak utsik egon dira.

Z.—Zenbat gela erabili dozuez?

K.—Sei gela, bakoitzean berezitasun bat erakutsi dogu, onelantxe:

Zur

Burdin

Metal

Buztin-ontziak

Liburu ta agiriak

Jantziak eta eun-lanak

gero, kanpoan, erakusketaren sarreran, lanabesak jarri doguz.

Z.—Zuen aldetik zer eskatu dozue tresna batek erakusketa onetan egoteko aukerea izan egian?

K.—Antziñatasuna; gizaldi onen aurrekoak izan bear izan dira, eta gero lengo erantzunean aipatutako mota baten barruan sartzea ta, jakiña, Euskalerrikoa izan eitela.

Z.—Eskerrikasko Karlos eta gure aldetik besterik ez, bakar-bakarrik asko poztuten garala onelako gauza bat ikustean, Euskalerraren onerako da-ta, poztuten gara batez be antolatzalleak gazteak diralako.

Beste gauzatxo bat be esan bear dogu, erakusketa zabalik egon dan egunetan itzaldi berezi batzuk emon dirala euskal-etnografiari buruz. Ia bostgarrena ikusteko aukerea dogun eta olan ba'da, irakurle, ez zaitze etxean gelditu joan barik, benetan, gauza ikusgarria da-ta.

BERNARDO'k

ANTZIÑAKO EUSKAL TRESNEN IV ERAKUSKETA

* — * — *

IV EXPOSICION ETNOGRAFICA

ZALDIBARKO ELIZATEAN

1981
Abenduak 24-27
24-27 Diciembre



Z. Erakusketan ikusi izan daikeguzan gauzak saldu egiten dira?

K.—Bigarren erakusketa antolatu genduanen, jendeak euren tresnak ekarten ebezanean, batzuk salneurriagaz ekarten ebezan eta orduan ikusleren batek erosteko gogoia ba'eban geuk saldu egiten geutsen, egia esateko, gu bitartekoak giñan tresnaren jaube ta erosleen artean. Baiña beste erakusketa guztietan ez dogu ezer saldu ta oraingo onetan be ez.

Z.—Lan aundia emoten dau onelako erakusketa bat antolatzeak?

Eginkizun bikaiña da, bene-benetan, euren bizitzan aundi izan ziran gizasemeak aitatu ta gorestea.

Naiz-ta guk oraintsu arte ixil-samar eukia izan, olakoxea genduan Zamarripa, Txorierriko seme langille argia, ainbat euskal liburu bitxi idatzi ta argitara emon euskuzana.

Esanak esan, euskal arloan lan egin eben, eta egiten daben, guztiak merezi dabe —ez ukatu— gomutagarri berezi-berezi bat. Bestelan, esker txarreko gintzatekez.

ZAMARRIPA, GIZASEMEA

Laredo'n jaio zan arren, beronen gurasoak sondikararak ziralako, ona aldatu ziran Paul umetxo zala. Emen egin zituan bere lenengo ikasketak be, eta gero Durango'n. Geroago, eliz-gizon izan nai-ta, Gasteiz'ko Apaiztegian osotu ebazan Jakintza, Teologia ta gaiñerako ikasiak. 1907'garreneko garizuman mezakotu zan. Lenengo arimazaintza, barriz, 1907'tik asita Bermeo ondoko Al-mike auzotegian egin eban; gero Otxaran, Gatika, Bermeo ta Sondika'n. Emen Sondika'n il zan 1950-8-17'an.

Arimazain arduratsua izan zan beti; errian, ostera, edozeiñi laguntzeko beti gertu egoana. Artzain ona bene-benetan. Ortan lan egiteko ba-eban aparteko eskerra be; gizaseme betillun eta tristeak ez dira iñoiz be konfiantza itxartzen dabenak; bai, ostera, poza ta alaitasuna ereiten dauskuenak. Olakoxea zan Zamarripa, alaia ta umore onekoa.

Zamarripa umore onekoa zan. Berberak diño argiro: «Barreka jaiotetik yator dala uste dot onako barre egiteko daukodan berezko erreztasun zorioneko au». Geroago, bere *Kili-kili* liburuaren itzaurrean be bardin diño sku; Bermeo'n egoala, ba, itxas-ertzeko umore oneko onegandik be zerbait ikasi eban. «Barre egiteko erreztasun au —diño— berezkoa dodala, ta arraiñak uretan ibiltea lez bear daula nire gogo barrekor onek, beronen seanean egoteko, barre artean ibiltea, emen, Bermeo izaneko beste arrain-erri maitegarri onetan, ikasi dot».

Mikel Zarate txorierritarak, aren lanak aitatzean, zer oni buruz au diño: «Aren lanak ez dira mamintsuak. Gai aldetik eta umore aldetik be urri samarrak. Eta euskera aldetik? Onetan dogu maisu goragarria».

Zenbait buru ainbat aburu, esan bear emen be.

Egia esan: euskeran maisu ba'dogu, bera arimazain egon zan errietako euskal esaera giar filosofiz jantziak batu ta osotu zituan liburuetan darabiltzalako dogu batez be.

Gai onetaz mugaz bestaldekoak be, au da, iparraldeko euskal idazleak be, naikoa ondo konturatu ziran. 1927'an, Zamarripa'k olerki liburu bat argitaldu eban; 36 poesi goi-usaiñeko, ia geienak gaztetan egiñak eta sarituak.

Lafitte jaunak, liburua aztertu ondoren, onela idatzi eban *Gure Herria'n*: «Olerki edo pertsuak ez dira segur nola nahikoak... Halere aitortuko dugu nehiago ditugula Zamarriparen irri-solasak: aise, ez ote aisegi, heldu zitzaizkon pertsuak, elhea zariola; Oxobi edo Orixen tinki-

rik ez dute, are gutiago Iratzeder edo Jauregi-ren hegallik... Bainan erakusten dute zorbateino zen herri-zale, eliza-zale eta eskual-zale suhar».

EUSKAL IDAZLE

Gazte zala, filosofi gaiak aztertzen asi baiño leen ekin eutson idazkartz-lanari.

Azkue'k Bilbo'n ateraten eban «Euskalzale» asterokoan agertzen dira aren lanak, 1897'an asita agertu be, izkirimiriak lenengo ta gero gerokoak, ipuiñak eta ziri-bertsoak. «Artatxori» ez-izena erabili eban len-idazlanok izenpetzean.

«Euskalzale»-n ez-ezik, «Ibaizabal», RIEV, «Jaunjoiko-Zale», «Euskal Esnalea» ta beste aldiskari-tzuetan be idatzi eban. Azken urteetan, barriz, 1935 an asita, «La Gaceta del Norte»-k eukan euskal atalean idatzi eban, oso sarritan.

Ugaria izan zan bere lanetan. Ona argitara zituan libururik geienak: 1) *El Bascuence facilitado* (1909); 2) *Manual del Vascófilo* (1913); 3) *Vocabulario vasco-castellano y castellano-vasco* (1913); 4) *Zaparradak eta* (1926); 5) *Gora begira* (1927); 6) *Kristauaren Dotriñea* (1926); 7) *Conjugaciones guipuzcoanas* (1929); 8) *Anayak gara* (1929); 9) *Kili-kili* (1930); 10) *Firi-firi* (1935).

Emen daukagu Zamarripa'ren euskal lana. Txilla ta egazkada lar aundirik bagakoa bear bada. Lan txiki, errez eta errikoiak beti daben grazi ta edertasunez jantzia. Berak bein eta barriz adierazten dauanez, euskal kezka bizi izan yakun sondikarra.

Bai ilgo ez ilgo ikusten eban euskera, biotz-biotzez maite eban izkuntza, eta eliz-ardurak izten eutsozan asti-une guztietan, barruak eska bezela, ortan jarduna dogu, euskera ikasi, idatzi ta erakusten. Ez dogu eredu txarra!

IDAZLE ATSEGIÑA

Zamarripa'ri buruz iñor txarto esaka ibilli yakunik ezin geinke aitortu. Onen idatziak geienik txaloka artuak izan dira, bai leen bai orain.

Mikel Zarate'k iñoiz bota eban arren Zamarripa'ren irri-barreak ez ebela pipermin esatekorik, euskerari begira onan idatzi euskun: «Zamarripa'k darabillen euskera jatorra, garbia ta erreza da... Idazle zaarren eta erriaren iturritik edan dau ura. Eta, jakiña, orrexegaitik da ain jatorra bere euskerea. Alkar-izketak, esakerak eta abar ondo josten ditu. Zenbat aberastasun euskera aldetik!».

Karmelo Etxenagusia'k, onela: «Euskaltzale sutsua ta langillea. Euskera jator-jatorra dau, Bizkai'ko Txorierraldekoaren ispillu garbia; ganera, argia, bizia, edozeiñek ulertzekoa».

MARRIPA 1950)

IDAZLEAK

Eta Aita Villasante'k: «Zamarripa'ren euskera beti duzu jatorra ta konfiantza osokoa, errian eta idazle zaarretan oiñarritua».

TEXTU BATZUK

«Ibaizabal»-en (33'garren geian, 1902) dator *Euskera ta bere arerioak* deritxon lantxo.

«Iru eratara —diño— izan leiteke euskaldun bat erdalzalea, au da, Euskerearen arerioa: lenengo erakoak dira, euskeraz berba egin baiño egin ez gurago dabenak; bigarrenak, euskera erderatsua garbia baiño geiago aboan erabilli gura dabenak; eta irugarrenak, azkenez, euskerazko gauzari al daben laguntasuna emon gura ez dutenak.

Bigarren ta irugarren eratako erdalzaleak ezagututea urrango gei baterako..., edo birako itxiko dogu, bada gaur naiko bear emongo dausku leenengo erakoak nortzuk direan ikustek.

«Jaio ta gero umetxutan larri egoten da euskalduna (beste edozein legez) berbaz ikasi arte; gura leuke berba egin ta ezin dau... Ta alango baten, ume ori mutua izateko aukeratua ezpada, ume orregana dator euskerea, ta gozorik emoten dautso bere berbarik gozoena; ta umeak *zerutar* ama orren laguntasunagaz, poz andiaz deituten dautso aita lurrekoari: *Ai... tall*

Oindiño ume orrek erdera ikasten ba'dau bere, euskera bein ikasirik, ama on berorren laguntasunagaz ikasten dau Cervantes'en berbetea.

Ta aror: ume orrek erdere ikasi dau, ta ikasi dau ama euskerean laguntasunagaz. Zeinbat esker ez dautsoz zor euskereari! Aiztu yako bada ume orreri bere amak eginiko mesedea, ta ama berori leenengo berbetatzat euki bearrean, bigarrentzat —zer diñot bigarrentzat?— azkenengotzat dauko, ta a burubakotasuna, a eskerbakotasuna!, bere aboko ostatua ukatzen dautso bere leenengo irakasla izaniko ama onari.

Gauza bigaitik ukatuten deutse miña euskereari euskaldun erdalzaleak; batzuk arrokeariagaitik, beste batzuk, eurari siñistu gura balaustazue, lotseagaitik.

Arrokeriagaitik euskaldun askok egiten dau erdera. Ba doa baserritik ume bat Bilbo edo beste uri andi batera... Erderea ikasirik etxera biurtuten ba'da, erakutsi gura dau, bere lagunen artean, urian arturiko *jakituria*, ta or joatzu mutilla erdera *zara zara* alderdi danetatik egiten dabela...

*Oraindik be kateak
Erroma orretan Leon gidaria
loturik dauke? Katetxeko atepak
ez dira irigi? Au negargarrial
Getago bere txarrak
entzungo dabez onaren negarrak?*

*Babil Askatasuna
lurraren alde batetik bestera...
ta ezta bein joan oraindik zugana?
onan kaltezko kateok austera?
Zelan da ain ez-bardiña
askatasunak eiñiko alegiña?*

*Ail, baiña zer diñot nik,
askatasunak bazaukez katigu,
bazaukez berak lokarriz jantzirik?
Tamalez bai dakigu
seme gazte ta zarrak
nondik datozen kateon indarrak.*

*Ori da askatasuna
katega katez lotuten dabena
ta Aita katigu, ail, ipinten dauskuna.
Askatasuna da beran izena!
izen ona benetan...
ail, balitz ona bere egikeretan!*

Beste euskaldun batzuk egin gura dabe erdera, jakedun edo txaketadun gutxi euskeraz ikusten dabelako. Uste dabe, onek darabilen berbetea euk aboan erabilli ezkeror, ba dirala eurak beste, ta or joatzuz erdera-azia leku danetatik eraiten, or jausi ta emen etzun ibilliko ba'dira bere.

Lotseagaitik euskera ez dabela egiten esaten dabenak bere ba dagoz. Eta onen artean jakedunak asko, geienak. Ba dagoz ogei gizon jatordu edo batzar baten, eurotan emeretzi euskaldunak izango dira, ta, ori miragarria!, batak euskerarik ez dakielako, erderaz jarduten dabe. Itandu ezkeror ia zergaitik egiten daben erdera... esango dautzue aziera onak edo edukaziñoak alan aginduten dabela, batek ez dakianean besteak dakien berbeteariko bat eta beste bat dakienean.

Baiña, ez aziera onak ez amandrek galerazoten dau euskera egiten. Emeretzi gizon egongo dira euren erriko izketan jardun barik, beste batek ez dakielako! Nork aginduta? Frantzesak zer egiten dabe, erdera jakin arren bere, Espanian bertan izanagaitik bere, espanñatar bat alboan eukaz eukiagaitik gora bera? A erdalzaleak, zuon errazoe danak akiakulak edo atxakiak dira!».

Ikusten dogunez, euskera errez, arin, garbia darabilkigu Zamarripa'k.

ETA OLERKARI?

Bertsoz be ez eban gitxi idatzi gure idazleak. Eder yakon, gaztetan batez be, musai dei egitea ta arein kutuntasunean bizi izatea. Gasteiz'en ikasle zala asita, sari ederrak be jaso zituan.

Esate baterako, 1903'an Donapaleu'n; 1904'an Ordizia'n eta Ustaritz'en; 1905'an Bergara'n eta Baigorri'n; 1906'an Donostia'n eta abar.

«Ibaizabal» asterokoan agertzen dira aren poesiak. Liburuetatik «Gora begira», 114 orrialdeko bilduma, ko-plaz egiña da oso-osorik, eta «Kili-kili»-n be agertzen dira batzuk.

Aitatu dogunez, P. Lafitte'k ez eukazan txartzat onen bertsoak, eta Donosti'ko osagille jakintsu ta euskaltzaiñak, ots, Aingeru Irigarai'k be, onela diño: «Zamarripa'ren olerkiak danak dituzu onak». Eta eukok banaka aztertuz, au egozten dausku: «*Aupa laztantzul!*, titulu-koak, berezi, euskereak izkelgi guztietan dauzkan aur-iztegi aberats-aberatsaren zati eder bat ematen digu» (RIEV, 1928, 167 orr.).

Erakusburu legez, ona au, 1903'garreneko martian, XIII'garren Leon Aita Santua kate artean ikusten ebalako, osotu ebana.

*Txarrantzat da ondasuna,
onantzat beti dakaz, ail, negarrak;
deunga danantzat guztia da biguna,
onan kaltean dire bere indarrak.
Ori da askatasuna,
ojuka or ta emen entzuten doguna,*

*Beioa guzurrezko
askatasuna lurbira onetatik...
Eztot begirik, ez, bera ikusteko...
Nire begiak nai dabe bertatik
Leon Andia ikusi,
Katerik barik Errona'n nagusi.*

AITA ONAINDIA

GURASOAK ETA SEME-ALABAK

Lantxo au Loiola'ko 100 ikasle-
ren eritxiak entzun ondoren egiña da.
14-15 urteko neska-mutillak dira,
ikastolakoak.

Lenengo gurasoen alde onak eta
gero alde txarrak ipiñiko ditugu,
seme-alabak ikusten dabezanez...

Gero seme-alaben alde onak eta
alde txarrak ikusiko ditugu...

Azkenez, gurasoen eta seme-ala-
ben arteko artu-emonak zelan kon-
pondu daitezkan, ikastolako gazte-
txoak euren eritxia emongo deuskue...

* * *

GURASOEN ALDE ONAK

Gure gurasoak gu asko maite gai-
tue, eta gauzarik onenak guri emoten
deuskuez...

Gu, al danik ondoen bizitzea, ezer
falta barik, gogo biziz gura dabe.

Bizitza osoan gugatik sakrifikatzen
dira:

eguneroko lanetan,
gure geixoardietan,
edozein estualdietan,
beti guri laguntza emoteko
prest egoten dira.

Eguneroko babesa, jantzia,
eskola... emoten deuskuez.

Gure kapritxo guztiak beteten da-
bez.

Gure alde naiko izerdi emoten
dabe egunero.

Gu ondo edukatzea gura dabe,
gero bizitza irabazteko prestatu gaite-
zen.

Guk droga artzerik ez dabe nai, bi-
zitza ondatu egiten dabelako.

* * *

GURASOEN ALDE TXARRAK

Gure pentsakerak eta gurasoenak
ez dira bardiñak, eta guk eurek legez
pentsatzea gura dabe.

Ez dira gazteen giroan sartuta bizi,
eta orregatik ez gaitue ulertzen.

Beti eurena aurrera eroan nai dabe,
euren pentsaera aldatu barik.

Arrazoa beti eurena ei da.

Geiegi maite gaituelako, gutzaz
geiegi arduratzen dira, eta beti dabiz
guri esaten, kontuz onegaz, kontuz
aregaz!!! Eta bildur onegatik askata-
suna, libertadea, gitxitu egiten deus-
kue.

Gure bide guztiak arriskuz beterik
ikusten dabez, eta bizitzaren esperien-
tzirik ez dogulakoan, egoak moztu
egiten deuskuez.

Eurentzat ona dana, guretzat bere
ona izan bear dauala, uste dabe, eta
orregatik gure prolemetan geiegi sar-
tzen dira.

Mentalidade zarraz, gauza barriak
konpondu gura dabez.

Batzuetan gizon eta emakume le-
gez tratatzen gaitue, eta besteetan
ume legez.

Gure eritxiak agertzen doguza-
nean, barre egiten deuskue, eta ori ez
jaku gustatzen.

* * *

SEME-ALABEN ALDE ONAK

Guk be gure gurasoak maite ditu-
gu...

Eta etxeko lanetan, noizean bein,
laguntzen deutsegu.

Gauza batzuetan gure gurasoai
gustoa emoten alegintzen gara.

Guk be gure geroko bizimodua
prestatu gura dogu...

Biziteko gogo ba-daukagu, eta
alaitasunean bizitzeko gogo andia,
bai gure etxean, baita gure lagun
artean...

Gure gurasoak baiño gitxiago ga-
rala kritikalaria, uste dogu.

Gure kasketaldiak, umore txarrak,
eta asarreak, ez dira gure gogo txar-
retik urteten.

* * *

SEME-ALABEN ALDE TXARRAK

Gure gurasoen mundua ulertzen,
ez dogu alegiñik egiten.

Ez gara konturatzen zergatik ain-
beste gugatik arduratzen diran.

Ez dogu ainbeste arrisku eta galbi-
de alde guztietan ikusten.

Gurasoen esanak ez ditugu beti
egiten.

Ez dakigu obeditzen, batzutan al-
perkeriagatik, eta besteetan pentsaera
ezbardiña dogulako.

Asmo onak ba-daukaguz, baina
erantzakizun (responsabilidada) gitxi-
ko gazteak gara.

Gurè gurasoen lanari eta izerdaiari
ez deutsegu eskerrik emoten.

Bizibide bat irabazteko gitxiegi es-
tudiitzen dogu.

Gurasoak gure kapritxokeri guz-
tiak egitea gura dogu.

Emoten deuskuen libertadeaz abu-
satu egiten dogu.

Bizitza komodoa gura dogu, ezer-
txo falta barik.

* * *

ZELAN KONPONDU?

Batzuetan guk, eta besteetan gure
gurasoak eukiko dabela arrazoa pen-
tsatuz...

Alkarren arteko eztabaidetan erdi-
bide batera etorrita.

Alkar berba-egiñaz, alkarrerri
gogo-onez entzunez. Eta besteak esan
dauena «disparate» bat dala, ez pen-
tsatuz...

Gurasoak gure pentsaera ulertzen
alegiñak egin bear dabez, eta guk eu-
ren pentsaera; konfiantzako alka-
rrietzeko sortuz, eta bakotzak bere eri-
txiak agertzeko, bildur gabe, bideak
zabalduz.

Baiña orretarako bi alderdiak amo-
remoteko (ceder) prest egon bear da-
be, buru-gogorkeriak, eta kasketak-
diak aldunduz...

Baiña batez be konfiantza geiago
bear dogu, alkarren akatsak eta utsak
ulertzeko... Maitasuna eta konfiantza
dagozen artean, edozer gauza, txarre-
na be, konpondu daitekela, uste do-
gu... pazientziz eta astiari astia emon-
da.

Loiola'ko ikastola.
GOIKOETXEA'tar Iñaki.

IBILLIN-BA'RAM (eta II)

Orain Ba'ram ondamenean dago, jarraitzen dau James Forest idazleak.

—Zelan ondatu zan?

—Gure gurasoen Israel'era sartu ziranean, gudariak iruzur egin euskuen. Geuk ikusi genduan gure tresna ta gauza guztiak atera ebezala eta gu erbesteratuta geratzen giñala. Auxe izan zan gure ostataria emon euskuen ordaiña!

* * *

Jerusalem'en egoan Israel'go epaitegira joan giñan eta auzia irabazi be bai, baiña gudarosteari eskatu geuntsonean, ez eben gura izan epaitegiko agindu ori betetu.

Bigarrenez be epaitegira jo genduan eta 1951'n barriro irabazi genduan auzia. Orduan, Ben-Gurion lenengo ministroak erriaren ondamena agindu eban.

Gabon-egun goizean bonbakatu eben eta zutunik geratu zana «bulldozers» deritxoen guda-tresnaz zapaldu eben eta toki guztia zelaituta geratu zan.

* * *

—Zure etxeok etxera ezin zeintezela biurtu jakin ebenean, nora joan ziñeen?

—Galilea'ko Ipparaldean dagoan Gish'era. Nire senideak an dagoz oraindiño batzuk, beste asko Ba'ram'en. Emendik bialtzen ninduen Jai-fa'ko Ikastegira.

* * *

—Eta eziketaren ondoren?

—Nazaret'en bigarren maillako Ikastegian. Gero nire goi-gotzaiñak Paris'era bialdu ninduan, abadetzarako gertakizun lez filosofia ta telojia ikastera.

1965'ean egin nintzan abade Nazaret'en eta urte batean egin neban

lan erri onetan. Gero Jerusalem'era joan nintzan eta Ebertarren Eskola Nagusian Biblia ta Talmud ikasi nebazan. Azkenez Genoba'ra eldu nintzan eta emen urte bat egin neban mundu zabaleko eleizen batzarrean, dotoretza egiñez.

* * *



—Ba-daukazu zure umearoko oarpen edo eksperientzirik umeen taldeak zelan erabilten ebezan jakiteko?

—Bai, ba-daukot iñoz aiztu ezin neiken jazoriko bat. Nik amar bat urte nebazan sasoiñ izango zan. Gish'en lurpean urritzikiñaren aria egoan. Goiz baten apurtuta agertu zan eta aren zati bat galdu egin zan. Gudariak zalapartaka etorri eta salatu egin ginduezan umeok. Geu, gurasoak eta aitita-amamak oratu eta famili guztia batu eta auxe esan euskuen onelako irain ingugarri ta lotsabakokeriak ezarriz: «Ez dozue ezertarako be balio. Azpikeriz zabilte. Zuen umeak lapurrak dira eta zuek be lapur madarikatuak eta lapurren irakasle».

* * *

—Urtero datoz Israel'era, Lur-Santuetara giza-moltzo aundiak eta ez dira konturatzen nortzuk eta zelan bizi diran emen.

—Egia da diñostazun ori. Arri, are ta lur santu oneik ikustera etorten dira eta emengoai jaramonik be ez dautsee egiten. Antxiñako basilika ta eleiza nagusai eta orain egiten diranai emoten dautsee euren astia ta ardurea. Eleiza garaitzaillearen gogorea agertzen dabe arrientzat eta antxiñako gauzentzat. Orretara doa euren lenengotasuna ta on-eritxia.

Gu izutzaille edo terrorista lez artzen gaitue eta arabiarrek Israel'en barruan bizi diran «enfants terribles» batzuk baiño ez dira orreintzat.

* * *

—Eta nortzuk dira emen benetako izutzailleak?

—Ba-zenkie Israel'go egazkiñak Galilea ta Libano gaiñean ikusten diranean zelako ikarea sartzen daben! Oneik euren su-danbadakaz, egun baten biztanle geiago il leikee Palestina'tar gudari guztiak urte osoan baiño.

Gu ez gara izan inoz menderatzaille. Gu pozik eta gogotsu bizi izan gara geure lurragaz. Beste erriak izan dira gu beti azpiratu gaituenak. Eta azpiratzaille orreik gero iñoz be ez ziran emen geratu: Ejiptorarak, Erroma'tarrak, Grezia'tarrak Babilonia'tarrak, Asiria'tarrak, inglandarrak etorri ziran ona baiña guztiek egin dabe iges emendik.

* * *

—Baiña zuek Palestina'tarrok erri barria, oraintsukoa zaree!

—Egia. Guk erri indartsua izateko sustrai gitxi daukagu. Sortaldeko erri baten zatia gara, baiña iñok ezin lei esan guk palestindarrok erri bat izateko eskubiderik ez daukagula, emen berton geure lurrean lez egoteko ta biziteko aukerarik ez jakula emon bear.

LETONA'k

ETSAIA

Uribitarte

Ortzi illuntsuan jositako ladraillu gorri eta karkailduriko dorredun eliza baten, eguneroko mezea goizeko zazpi ta erdietan zan.

Sermoia, josulagun bedeinkatu batek egindakoa, deabruzko aerio baten aurkako burruka, baiña aragizkoa eta azurrezkoa.

Bilbotar elizea izten genduan, zergaitik zan jakin baga, atsekabeak, zauritzen eban gure amabost urteko biotz-barrua.

Arresituriko, auzoko konbentuko kanpaiak dringilin-drangulunka deika ziarduan zortziretarako mezarako egurats ketsuan.

Diruetxe aundien inguru-aldetik erdi-ikusten zan Bizkaiko zaindaritzadun Santutegiaren orratza.

Bigarren lerrokadan egoalderako Ipar Geltokia begiztantzen

zan. Beerantza ibiliz, iraterti arranditsuzko eta burdin-saretuzko goimaillarengo jauntxoan Club edo biltokia. Oinkada batzuk arantzago, ibaiaren ertzean, ikatzenun gabarrak.

Egun bat eta beste, ni eta nire lagunak ordurako etorten giñan ladraillu gorrizko eleizara itsumustik egin barik ain jarduntsua eta ikaragarria zan etsaiaz. Baiña ba-ziran batzuk arkitu izan ebena Garilleko 19 baten. Garaipentsu egin eben. Ezin-esanbesteko asarre gorriz, gutxi bear izan eben deusezteko.

Urteak geroago barriro egin neban nire goizeroko bidea. Igo neban «clubmanen» aldapa leguna, diruztatzezko baltzuen enparantzaz zearkatu neban. Begoña'ran-

tza begiratu neban. Maizter-etxe moltzopean lurpetua zegoen Larrazabal. Aurrera jarraitu neban. Erdia ibili nintzanean, esker-aldean billatuz, orain ez zegoen Arana'tarren etxea. Oinbidearen azkenean, orma aundidun, arredun, konbentua ordezkaturia izan zan kontsumuzko gizartearen biltoki aundi bataz. Ladraillu gorridun elizan zazpi ta erdietako meza denporan arerioetzaz iñork ez eban barbarik egiten. Orain kristau maitasuna eskatuzen zan. oartu nintzan ez zala an aurkezten Bilbo barriko gaztedia.

Gazteleratik euzkeratua.

MENDIKO ITURRIA

*Aurjitze atsegin, pozgarria,
mendiko biotzean iturria:
ur garden gozo edangarria,
bizitzadun emai gurgarria!*

*Maldan gorako nekapenean
tontorrera eltzeko gogoz
oiñak zuzentzen diranean
goi ta beak gozartzeko asmoz...*

*Zu ta ni ere... bizitzan gora
alkar zaindurik, alkarren babes,
edanik maitetasun onura
geurekiko iturri laztanez.*

*Bizi-izate, igaranean...
bidea izan leike luzea,
izan leike arantzaz betea
gau-egunen illundurapean.*

*Izan leike ona benetan
baldin badakigu eroaten
noizik ta bein artuaz atsedean
zorabiatu barik ametsetan.*

*Goizaldetako argi-txinpartak,
illunabarretako dirdaiak;
larrosadun urgune, zelaiak;
bizitzak damoskuzan txaplatak.*

*Amets-iturri bizigarriak,
gizonen biotzetan landatuak,
itxaropenezko bidaldiak...
norbera bakoitzak eratuak!*

ZUGATZ DONEA

Goiria

Zintzilik dago
Jainko maitea
gurutz batean illotzik,
bere alboan
Ama gaxoa
negar ta negar zutunik.

Igeska doa
mendi-ostetik
lotsaz ta ikaraz euzkia,
negarrez dira
ortze-goietan
izarrak eta illargia.

Abesten ziran
txori alaiak
ixildu dira beingoan,
t'ega-egaka,
txio ta txio
mendi-goietara joan.

Zeruetatik
aingeru-talde
naro-joria da jatzi.
ta eskuetan
Jainko-odola
bildu itzallez ta zoli.

Kalbariotik
ozte-taldea
beruntz jatzi da ixilik,
goian negarrez
lau emakume
gurutz-aurrean zutunik.

Bertan jainkoa
odol-tartean
gaizkille bai'litz zintzilik,
gurutzan dago
untzez josita
burua makur illutzik.

Zoruntsua Zu,
Zugatz Donea
Jaunaren oge goxoa,
maitasun garbi,
samur-garretan
piztutzen dozu gogoa.

Zu zara gure
biotzarentzat
kemena eta beroa,
gogoarentzat
itxaro-poza,
maitasun-kabi gozoa.

Zu zara gogo
zaurituentzat
osakai gozo-guria,
bizitz-bideko
illunalditan
izar ditzikor-alaiä.

Zu zara gure
neke-samiñen
pozkille-bakar-osoä,
ekaitz-alditan
zuzentzen gaitun
illargi bizi gozoa.

Zugatz Donea:
zure oñetan
dago egizko kabia,
Zugan bakarrik
aurki daiteke
atseden gozo-eztia.

Izan betiro
Zugatz Donea,
niretzat poza, bizia,
izan beti zu
bizitz-gabetan
niretzat izar alaiä.

Sartu ta gorde
nire biotza
zure maitasun-zeruan,
zure besotan
maitekor artu
eriotz-ordu estuan.

Bilbo - 1929

BIRAOAK

Ikasbide ona emon eban Alemaniako Bonn uriko gexotegiko gexo arek. Mingaña ebagi bear eutsoen. Osagilleak diñotso: azkeneko itzak esan egizuz. Aurrerantzean itz egiteko gauz ez zara izango-ta. Itzok esan ebezan: «GORA JAINKOA». Itz ederrak azkenez esandako itzok. Zenbateg darabilen osterä euren mingaña itz zikiñak eta biraoak esateko. Jainkoa irainduteko. Iguingarri egiz. Ezespäna merezi dabe onelakoak. Ta zer esan biraoak entzunda ixilik geratzen diran katolikoez? Ez al'da au koldarkeri aundia?

Ainbeste urte dauz katolikotasunak eta legeak biraoa zigortzen dauan arren ainbeste entzuten dira ta naiñon. Nori ezarri errua? Agintariä? Oneik be zerbait geiago egin bear leukie. Danok egin bear dogu lan onetan. Katolikoak gareanok ezin egon geinteköz geldi ta ixilik. Biraolariak ardua aunduagoa artzen dabe agintarien eta apaizen aurrean. Kontu aundiagoa euki oi dabe. Katolikoak era onez eta biotz onez eta goimaitasunez esan bear dauäsa biraolariari biraoa dan iguingarri ta naskagarria. Biraoa Jainkoari txua jaurtitzea lez dala.

Danok arduratu bear gara gizarte-giroa garbitzen. Gure Euzkalerrian be sartu da ekandu zatar au. Gure errian be entzuten dira biraoak. Gure euzkerak ez dau biraoak esateko itz-berbarik baiña euzkaldunak be esaten dabez beste izkuntza baten.

Garbitu dagigun gure erria. Gogor egin dagiogun biraoari. Atzerritarak gure errira etortzean giro obea izango dabe.

GOSEA MUNDUAN

EUSKALERRIAN

Euzkadi ez dago oraingoz gosez. Gure lurraldean gitxi izango dira, iñor ba'da, janaririk ezagaitik ilten diranak.

Ba-daukaguz gure buru-auste ta arazo ikaragarriak: Gogorkeria, lan-bakoak, erreken, aizearen eta eguratsaren kutsadura, garraio edo joan-etorriak, ekoloji-arazo aundiak... Baiña ilten ete da iñor Euskalerrian gosez?

* *
* *

JOKABIDEAK

Ete dakigu munduan zear gose ikaragarria dabillenik? Goseagaitik giza-seme edo alaba asko ilten diranik?

Gosearen zio, errazoi bat, lur-raren arazoetan dago, batez be artu-emonai dagokiezenetan, jabe-dunen eta onein onuren arazoa da zati on bat.

Erri askoren erabagiak, kanpotik urietara doazen arazoak, lur-legearen barriztu-bearra, langilleen sindikatu alkartuen jokabideak, iraulketa orlegia... eta olakoen ostean kondaira luzea dago, guztiak sakontzeko.

Irugarren mundua olako jokabidez eratzen da eta garrantzi aundia dauke erri-arteko aldi barri onetan.

* *
* *

ZER AZTERTU?

Ez dagigun esan lur larregirik ez dagoala eta ori dala munduko gosearen zioa.

Obeto litzake lur-raren jabe nortzuk diran, lurra nortzuk lantzen daben arakatzea, gobernuetako



agintariak dirua non eralgiten daben billazea, lugiñak gura dabena esateko zelango askatasuna dauken itauntzea, uriko gizonak zergaitik besetxea onartzen ez dauan jakitea, ekonomi onurak, itunetako guzurrak, maltzurkeria aztuntasuna neurtzean, ume ta andrazkoai egiten jakezan lapurretan kontuan artzea.

* *
* *

GUZTIAI

Guk eziña dala uste izan arren, urtean zear euneko 306 artzen dabe irabazi lez irugarren munduko maillegoak toki batzutan.

Gizon aberats eta aundiki kontzientzi-bakoen lapurketa ta maltzurkeria eta zapalketak al-dendu bear doguz, lurrak giza-seme ta alabai janaria emotea nai ba'dogu, munduko gosea kentzea benetan gura ba'dogu.

Igazko urrillaren 16'an egin zan «munduko janari-eguna» lenen-goz.

Egun au, bere asieraren 36n. urtean ospatu dau FAO'k (Lugintza ta Janarien Erakundeak), giza-diaren oiñarrian diranai ta aundiak gogo barria eroateko. 420 milloi gosedunentzat janaria billatzeko.

Bakoitxak, dan lakoa dala, bizitako ta jateko eskubidea dauko, berak janari ori irabazi ezin ba'dau be bai, naizta umea, zarra, elbarritua... izan.

* *
* *

GOSE EGUNA

Orregaitik, Mundu guztian egiten dan gose-eguna, gosearen aurka munduan zeozer egiteko da. Lurra landuten dabena omenaldia egiteko eguna da, janaria eurak sortzen daben ezkerero.

Gosea zergaitik sortzen dan eta zelan azpiratu leitekean aztertzeko eguna da.

FAO'k Janarien Mundu Guztiko Eguna erri-maillan egun au ospatzea nai dau. Mundu guztiko errien maillan. Lur-langilleen arazo ta larrialdiak ez dira erri batekoak, guzarte-arlo batekoak, zabalagoak baiño.

Sarri-askotan lugin-taldea txarto begiratu ta ikusia izaten da eta or sortzen da erriaren txirotasuna, bear-aldia, ez-eukitasunaren zioa.

Lur-Legearen politikea, erriaren bide okertuak eta zuzen-ezak, gose ta iraulketearen sustrai ta sorburu izaten dira.

* *
* *

ESKU BATUAK

Esku Batuak ekiñaldiak bost elburu ditu garrantzitsuenak eta onein artean nagusia lugintza-aren egoera larria da.

Lugintzak izan bear dau, egokiro eratu ezkerero, erri txiroen arazoak ebazteko laguntzarik aundiena emon bear dauana.

LETONAK

SALMOEKIN OTOITZEAN

LIBURU BERRIA

Laister argitaratuko den liburu baten ize-na duzu au. Solmoak otoitz-eskola bezela aurkeztea da liburu onen elburua. Ez du dena egiña emateko asmorik, billaketa jator bate-rako bideak irekitzea baizik.

Liturgian erabiltzeko egin zen salmo-liburuaren itzulpena, oraindik osorik argitaratze-ko zegoen. Emen aurki dezakezu itzulpen osoa. Eta «ORDUEN LITURGIA» liburua ezagutzen duenak ez du itzulpen onen jator-tasunari buruz aipamen-bearrik.

OARRAK

Salmo bakoitza bere oarrarekin dator argitalpean ontan. Otoitzerako lagungarri beze-la emanak dituzu oarrak.

Salmoetara ezin gintezke joan gauza be-rriak jakin-gogoz, bizikizun edo esperientzi baten billa baizik: salmogilleak Jainkoaren el-kartasunean izan zuen ototz-bizikizunak, bizi berria artu bear du guregan gaur egun.

Salmogillearen bizikizuna gaurkotzeko eta bizi-berritzeko giltza bezala emanak ditu-zu oarrak.

ARGIGARRIAK

Leenik, salmo bakoitzaren ari nagusia ematen dut, salmoa sortu zeneko giroa go-goan artuz.

Gero, salmoaren itz nagusiak: itzak eta esaldiak bein eta berriz aotan erabiltzeko gil-tza, orrela salmoaren mamia otoizlariaren biotzeraiño iritxi dadin.

Testamentu berriko argia ere ba-du sal-mo bakoitzak.

Eta azkenik, salmoarekin egindako otoitz labur bat: salmoaren otoitz bera, baiña kris-tau biotzetik igaroa.

ERASKIÑAK

Bukaeran, iru eraskin ditu, osogarritarako emanak:

- Egoera berezietan edo barne-giro eta aldi berezietan salmoak nola aukeratu.
- Orduen liturgiako banaketa.
- Itz zailen iztegitxo.

Edozein eratan edo garaitan, salmoekin otoitz egin nai duenak, edo beste norbaiti sal-moekin otoitz egiten erakutsi nai dionak, ba-du liburu ontan argi-biderik!

Agustín APAOLAZA

OARRA

Gazteekin edo otoitz-saillekoekin Jainkoaren Itza edo Otoi-tza aztertu nai duenentzat liburu au egokia.

Ez dakigu oraindik, zer lodiera izango duen. Inñolaz ere 600 orrialde beintzat bai. Orregatik ez dakigu sal-neurria ere zenbate-koa izango duen.

Nola nai ere, al dan beeranetik jartzen aleginduko gera: ar-pidedunentzat batez ere.

Asierarik arpidedun direnak merkeago jasoko dute. Beraz liburu au erosteko asmoa duenak idatzi beza zuzenbide ontara:

Aita Agustin Apaolaza
Beneditar Lekaidetxe
ESTIBALIZ (Alava)

BETA

Ziur *beta* zerbait egiteko aldi edo une dogu. Utzi leikena eta bere garaian artun geinkena. Eta:



ARTU eizu BETA

1. OTOITZERAKO: lur-gañean indarrik aundina izango dozu.
2. GOGAKETARAKO: Altsua izango zara.
3. KIROLETARAKO: beti gazte izateko.
4. IRAKUÏKETARAKO: Iakintsu zindezke.


19.^a ERANTZUNA

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	
1	A	C	I	R	I		O	N	D	A	M	E	N	D	I	
2	R				Ñ		N	O	A		A	Z	I	Z		
3	G	A	L	D	U		D	K			T			A		
4	P	L			N		A		I		G	A	B	O	N	
5	Z	E	V			B	E	R	B	E	R	A		A	S	A
6	K		D		E	Z			E		B	A	I	T	A	
7	I	K	A	T	Z	A			G	U	R	E		I	L	
8	C		B						I		U			A	K	
9	I		A				B	A	R	R	I	K	E	T	A	
10	L	E	R	T	U		A			A				D	A	
11	L		R		G		A	T	E	R	T	U		A	Z	
12	E		I		A	R	T	U		Z	E	R		K		
13	E		E		R	T	E		D	A		Z	E	R	A	
14	E	G	O	S	I		R		U	R		A		T		
15	Z	O	R			G	A	R		A	G	E	R	T	U	

Corri

5. MAITATZEKO eta MAITE zaitzaten. Goi-Goikoaren emaitzik edefena dozu.
6. TXERATSU izateko: zorionaren atea zabalduko iatuz.
7. PAÏ-EGITEKO: Biotzaren abestirik eztena dozu.
8. EUKUZABAL ZAITEZEN: Izan be bizitza ain dogu labur esku-kako gaitzen.
9. LANERAKO: ekintza guztietan lenbiziko izango zara.
10. EÏUKIOÏ izateko: Betiko zorion-aulkirako txartelik beiñena.

ETXENERIA'taf
P.s.i.
Ilo-Ilo 1981-X-26



Corri

EZKERRETI ESKUIRA: 1. Venta. Gimiendo.—2. Luz.—3. Cansar (se).—4. Vete.—5. Yo (agente transitivo).—6. Rico. Como (obrar como).—7. Sitio, lugar.—8. Padre-madre.—9. Exclamación de sorpresa. Macho. Bien.—10. Volando. Ardiente.—11. Suf. de privación. El año pasado.—12. Ligerero. Lamentable.—15. Manera de ser. Fatuo, cresta (gallo).

GOITIK BERA: 1. Destruir. Ave.—2. Roña, mugre.—3. Compañero, socio. Tuyo (lo).—4. Nombre.—5. Ladrado. Idioma, lengua.—6. Unir.—7. Anciano. Viga.—8. Cebada.—9. Salutación, rosario.—10. Tanto como.—11. Superficie, encima.—12. Entero, integro.—13. Piel, corteza. Playa.—15. Más allá. Tela, tejido.

EUSKERAZALEAK

ITZ ZAR ETA EGOKIAK

Berrogei milla, larogei milla edo ainbat geiago ibilli ei ziran, Arrasate'n asita, «korrika»n euskerea ikasten.

Zenbat izan ete ziran abedea be ikasi nai ez ebenak orrein artean?
Bear ba'da, geroak esango dauku.

* * *

¹ Bizkai'tik Gipuzkoa'ra noakizue.

Emen, eta an be bai, erri-izkuntza traketsa egiten dogula esatera.

Ez dot inoz entzun Bizkaia'n «korrika» esaten danik, eta orrelan ba'litz be, nire errialdean ez, beintzat. «Ariñeketan», ostera, esaten da.

* * *

«Bailla», batuan «baila», dantzarako itz egokia.

Bailla zer dan jakin-erazteko, aran eta ibar berebiziko itzak doguz.

Eta ez gaitean iparraldera joan, euskeraz kutsaturiko erdel-itzak euskaldun dirala esanik, burdikadaz dakarskuez-eta.

Arasetan itz zar eta gaur egun be egokiak diranai, begirapena zor dautsegu.

* * *

EUSKERAZAINTZAK, diru gitxidunak, bereak diran su tan txinpartaz alak egiten diardu, erri-euskerea onduz, erdel-itzak euskeraz zelan esan aditzera emoten.

Diruak, txintxiñak, arri labanetan irristatuz, daukanagana joten dau, ondoan ez daukanarai jaramon aundirik egin barik.

Napoleon'ek esaten ebana beteten da emen be: «Gudaldiak irabazteko, dirua bear da».

* * *

Gogoa ta adorea bearrezko dira. Ori barik diruak gitxi lortuko dau, baiña dirubako gogoa gaurko gizartean ez da adoretsua.

Dana dala or nunbait esaten dabe gura dauanak egiten dauala al dauanak baiño geiago.

LANDAJUELA'TAR A.'k

GOIZ-ARGI

Erribideko aldizkaria

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

Erderaz

BARRIAK ETA ARAZOAK

SASKI-NASKI

ERRIBIDEKO ALDIZKARIA

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

munduko goraberak, jazokizunak, barregaiak...

VIZAR

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia